

EKAINAK 6

Espainiako
Legebiltzarrerako
hauteskundeak

Botoen nagusigoa berriz PSOEren esku

Hego Euskal Herrian 399.199 boto bildu zituen igandean, 1989an baino 78.872 gehiago

PSOEk berreskuratu du 1991ko udal eta foru hauteskundeetan galdu zuen Hego Euskal Herriko botoen nagusigoa. Estatu mailako PPrekiko lehia itxia ondo etorri zaio PSOEri Hego Euskal Herrian ere oso boto kopuru altua lortzeko. PPK jauzi handia eman du Euskal Autonomi Elkartearen, bere ohizko boto kopurua bikoiztuz. Alderdi abertzaleentzat, oro har, emaitzak ez dira onak izan.

P. URZELAI / DONOSTIA

Joan den igandeko hauteskundearen emaitzen ondorioz, Hego Euskal Herriko alderdi politikoaren *ranking*-a berriro da 1989an izan zen (desagertutako EE alde batera utzita). Hau da, lehenik PSOE (PSE-EE eta PSN) jarri da (399.199 boto), eta bere atzetik EAJ (290.324), PP-UPN (286.661), HB (206.296), EA-EUE (129.263), IU (101.123) eta UA (16.594). Duela lau urteko emaitzekin alderatuta, hala ere, diferentzia nabarmenak daude. PSOEek EAJri ateratzen zaien alde handitu da, PP-UPNk 1989 eskuratu zituen botoak nabarmen handitu dira, IUk bikoiztu egin ditu bere botoak eta EA-EUE eta HBk lortutakoak gutxiago dira.

Argi dago, Madrilgo Gobernuaren bila, PSOE eta PPren artean izan den lehiak erakarri dituela botoemale asko, baina bipolarizaketa ez da fenomeno bakarra.

Azken lau urtetan hauteskundeetako emaitzek egonkortasun

HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

HEGO EUSKAL HERRIA

	1989 hautes. orokorrak			1991 hautes. foralak			1993 hautes. orokorrak		
	BOTOAK	%	DIP.	BOTOAK	%		BOTOAK	%	DIP.
PSOE	320.327	23,30	8	286.934	22,95		399.199	26,89	9
EAJ	254.645	18,50	5	296.597	23,72		290.324	19,56	5
PP-UPN	195.913	14,25	5	175.744	14,05		286.661	19,31	7
HB	217.278	15,80	4	203.572	16,28		206.296	13,89	2
EA-EUE	136.962	9,96	2	138.595	11,08		129.263	8,70	1
IU	49.302	3,89	-	29.031			101.123	6,81	-
UA	-	-	-	22.342	1,77		16.594	1,11	-
EE	105.238	7,65	2	74.042	5,93		-	-	-
Abst.	%35,40			%38,93			%28,9		

J. APEZTEGIA

✓ Ziurrenik, PSE-EEk irabazi dituen botoak fusiorik gabe ere irabaziko lituzke, baina lagundu duela ematen du.

itxura eman arren, mamitzen ari ziren zenbait fenomenok ondorio esanguratsuak izan dituzte igandeko hauteskundeetan.

Batetik, EEren desagerpenaren ondorioz, hauteskundearen frogarritasun zuten bi esperimendu zegoen martxan: PSE-EE fusioa eta EA-EUE koalizioa. Ziurrenik, PSE-EEk irabazi dituen botoak fusiorik gabe ere irabaziko lituzke, baina lagundu duela ematen du. Eta aurrera begira, datorren urteko EAEko hauteskundeetan garrantzia izango du jokalekua ezberdina izango baita.

EA-EUEren kasuan, koalizioak ez du balio izan botoak

✓ PSOE eta PPren artean izan den lehiak erakarri dituela botoemale asko, baina bipolarizaketa ez da arrazoi bakarra.

erakartzeko. EA-EUEk ez ditu hobetu 1989ko EAren emaitzak ezta 1991koak ere. Eta Gipuzkoako lehen indarra bihurtzeko

itxaropenak hutsean gelditu dira (Gipuzkoa da EAren 1989ko datuak hobetzen dituen herrialdea). EA-EUEren emaitza hauei arrazoiak bilatzea konplexua da lehen irakurketarako.

Bestetik, PPren portaera ikusgarriak izan dira Hego Euskal Herrian. Nafarroan (UPN-PP) foru hauteskundeetako emaitzak hobetu ditu, baina jauzirik handiena EAEn eman du. Gipuzkoan, esatebaterako, 1991ko boto kopurua bikoiztu egin du eta Araban, ia hirukoiztu egin du, UA baztertuz. Bizkaian ere, bikoiztu ditu bere emaitzak PPK.

EAJren goranzko joera ez da indarrez gauzatu eta 1991ko emaitzak doi doi hobetzen ditu. Aldi berean bere indarra ez da izango berak nahi zuen bezain beharrezkoa.

HBren botoekin zer gertatzen zen ikusmina zegoen. 1989ko datuekin alderatuta 11.000 boto inguru galdu ditu HBk, baina 1991koekin alderatuta ia 3.000 irabazi ditu (hauteskunde hauek orokorrak izan arren). Kontutan hartu behar da 1987ko Europako hauteskundeetatik aurrera HBk botoak galdu dituela hauteskunde guztietan, 1991ko hauteskundeak iritsi arte. Oraingoan, boto batzuk irabazi ditu, batez ere Nafarroan. Izan ere, herrialde honetan 1989ko emaitzak ere hobetu ditu. 206.296 boto bildu arren, diputatu emaitza eskasa lortu du HBk: bi, bata Gipuzkoan eta beste Bizkaian.

IUri dagokionez, Espainian baino emaitza hobeagoak lortu ditu Hego Euskal Herrian. 1989an 49.302 boto zituen eta 1991an 29.031. Aurten, ordea, 101.123 boto bildu ditu.

«Hipotekarik gabeko hitzarmenak»

DONOSTIA

■ Euzko Alderdi Jeltzaleak Madrilen bere beharra izango zutelako itxaropenak zituen hauteskunde hauetan. PSOEek irabazi, baina diferentzia txikiagatik irabaztea zen EAJri gehien komeni zitzaion hipotesia, baina pronostikoen kontra PSOEek 159 diputatu lortu ditu eta kopuru horrek magultasun handia emango dio hitzarmenak egiteko orduan, «hipotekarik gabe», Ramon Jauregi PSE-EEko idazkari nagusiak berak atzo azpimarratu zenez.

Baliteke gobernu hitzarmenik behar ez izatea, Jauregik esan

zuen bezala, eta bestelako akordio puntualen bidez bermatzea PSOEren gobernuak. Horrek hala ere, ez duela «akordio zabalagotarako» aukera baztertzeko gaineratu zuen buruzagi sozialistak. «Nazionalistekin duten elkar ulertze ona» aipatu zuen Ramon Jauregik CIUri eta EAJri buruz ari zela, eta honela «Espainiaren eraikuntzan parte» hartu ahal izango luketela adierazi zuen.

PSOEek nahikoa luke 17 eskainu lortu dituen Convergencia i Unio (CIU) alderdiaren laguntza, baina jeltzaleak ere hitzarmenara bereganatzen saiatuko da alderdi sozialista beren babesa kontsezio handirik egin beharrik izan gabe

lortzeko asmotan jakina. Horrelako hitzarmena posible dela uste du Ramon Jauregik, «baina hipotekarik egin gabe» argitu du.

Hitzarmen aukera honi buruz eta legegintzaldi berrian lortu nahi duten partehartzeari buruz «gogoeta egin» dezaten eskatu zien PSE-EEko idazkari nagusiak CIU eta EAJ alderdiei. Hauteskundeon ostean zabaldu den epea interesagarria izango dela uste du, eta zer egin nahi duten erabaki beharko dutela esan zien Jauregik euskal eta kataluniar alderdi nazionalistoi. «Gure arteko komunikazioa, egun dugunaren moduan, ona litzateke Espainiarrentzat» esan zuen atzo Jauregik.



Hitz egiteko garaia heldu zaie EAJri eta PSOEri.

OLALDE